

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ ASTIGARRAGA

Ergobian segida oraindik, festak

Azken eguna dute, festetan. Eguerdian hasita, idi-demak, Miren Amuriza eta Amets Arzallusekin bertso bazkaria eta Laiotzekin dantzaldia izango dira.

FESTEK azken eguna dute gaurkoa, Ergobian, baina ez horregatik, makalena. Ez da erraza izango, hala ere, atzoko sorpresa gaitzatea. Izan ere, urteroko Sagardo Lehiaketan, omenaldi berezia egin zitzaion, ezustean, Agustin Urreagari. Txupinazoa bota ondoren, ez zuen horrelakorik espero. Lehiaketari dago-kionez, 16 etxeren artean Barkaiztegi izan zen txapel-duna, Irigoien bigarrena, eta Aloranea hirugarrena.

Gaur, idi-demak, Miren Amuriza eta Amets Arzallusekin bertso bazkaria eta Laiotzekin dantzaldia izango dira. ■

■ ASTIGARRAGA WATERPOLOA

«Kirol hau ez da gizakiarentzako ingurune naturalean egiten, eta kosta egiten da»

Astigarragako igerilekuan ez dago aukerarik, baina Xabier Aranzabal eta Nahuel Gutierrezentzat ez da arazoa; Waterpolo Donostia Urpolozaleak taldean aritzen dira, horixe, waterpoloan.

JAIOTZEZ Altzakoa da Nahuel Gutierrez (2001), baina Astigarragan bizi da orain. Xabier Aranzabal (1998), berriz, astigarrarra da, betidanik. Hala ere, Waterpolo Donostia taldean egin zuten topo. Aurrendenboraldia prestatzen laster hasiko dira, eta herritarrek ere animatu egin nahi dituzte: «etor daitezela entrenatzera!».

Elkarrekin, aurten

Gutierrez ume-umetan hasi zen, uretako kirol honetan. «Altzan aukera zegoen, eta amak nahi zuen nik kirola egitea, beraz, waterpolo eta igeriketa ikastarotetan eman zuen nire izena. Entrenatzaile bera zen bietan, beste pare bat jokalarik ere ezagutu nituen...». Eta horrela hasi zen, duela 13 bat urte. «Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan nengoela hasiko nintzen, eta ordutik, ez naiz geratu!».

«Ni baino 10 urte gehiago daramazkizu, orduan!», dio Aranzabalek. «Duela hiru bat urte hasi nintzen. Eskubaloia egiten nuen, baina ura ere gustatzen zitzaidan, eta horrela hasi nintzen. Baina ez dute antzekotasunik».

Pasa berri den denboraldian jubeniletan aritu da Aranzabal, eta aurten, seniorretara egingo du salto, Gutierrezen mailara. «Hauek txikitatik aritu dira waterpoloan, eta gu ari gara, baina poliki-poliki... Gehienok berriak gara!», dio. Agian bi talde egingo direla dio Gutierrezek. «Jubeniletatik dezentegoko dira, eta inor kanpoan ez geratzeko, agian B taldea sortuko dute bigarren ligarako, inor erretiratu ez dadin.



Astigarragan ezin denez, Waterpolo Donostia taldean aritzen dira Xabier Aranzabal eta Nahuel Gutierrez.

Kirol askotan, jendeak 18 urte egitean utzi egiten du, ez dagoelako non jokatu. Klubak hori saihestu nahi du».

Erresistentzia, giltza

Nork erakutsi badauka, beraz, Aranzabalek. Biek posizio berean jokatzeko dute, gainera; buia dira. «Helburua izaten dugu kanporatze bat lortzea edo gola sartzea», azaltzen du Gutierrezek. «Ez da tranpa egitea, jokoaren parte da». Ondo ikasia dauka Aranzabalek ere. «Kanporatzeak 30 segundukoak izaten dira. Hori aprobetxatzea da kontua. Horrela lortzen dugu uretan gure taldeak jokalarik bat gehiago izatea». Tranpak egiten dituen, hain zuzen, kanporatua izaten da. «Ur azpian asko heltzen da, eta hori ez da goitik ikusten! Ezta bi arbitro izanda ere!».

«Ur azpian asko heltzen da, eta hori ez da goitik ikusten!»

Ados dago Gutierrez ere; «bazueta tatuaje berriarekin ateratzen gara uretatik...».

Hori saihesteko, fisiko ona izatea da giltza. «Ez baduzu entrenatzen eta fisikoa mantentzen, nabaritu egiten da, zure kontrarioak indar gehiago izango baitu. Azkenean, erresistentzia haundia izatea, fisikoa izatea eta hanka onak edukitzea da giltza. Kirol hau ez da gizakiarentzako ingurune naturalean egiten, eta kosta egiten da. Oso fisikoa da, eta konstantea izan behar da, eta entrenatu».

Denboraldi berria, berri-berri Ezinbestekoa denez entrena-

tzea, hilabeteko atsedena besterik ez dute izan, eta irailean hasiko dira aurrendenboraldia prestatzen. Denboraldi berria, berri-berria izango dute, ordea.

Seniorrak Euskadiko aurreneko mailan aritzen dira, baina beti, nazional mailara igotzeko asmotan. Espainiako Txapelketan ere hartu dute parte aurten, Granadan. Orain, ordea, aldatzeko izango dituzte taldean, eta «helburu nagusia mantentzea izango da, baina beti, gora begira!». Bigarren taldeak, berri, aurreneko urtea izango du maila honetan, eta «taldea osatzea» izango dute helburua. Aurten, gainera, arau berriak jarriko omen dizkiete, «zorrotzagoak». Fortunarekin izaten dute pike haundiena, eta beste hainbaten aurka bezala, Hernaniren kontu ere aritzen dira. Nor egokituko ote da ondoen? ■

ERGOBIAKO JAIK

12:00, Idi-demak. LV. Ergobiko Sari Handia, Tximelak babestua. Parte-hartzaileak: Olazar Lezokoa, Irarreta Oretetako, Isidro Erregetia Azkoitiakoa eta Telleria Lasartekoa.

14:30, Bertso bazkari ofiziala, Miren Amuriza eta Amets Arzallus bertsolariekin. Bazkaria izango da, fritoak, iberiko sorta, zapoa plantxan eta azpizuna entsaladarekin (helduek 28 euro, eta umeek 15).

18:00, Idi-demen bigarren txanda eta sari banaketa.

19:30, Laiotz musika taldea.

23:00, Zezen suzkoa eta su artifizialak, eta Laiotzekin segida, jaiak bukatu arte.

Zorionak Eñaut Barriola Miner!

11 urte

ANTZIOLA, 3
943 55 17 91
HERNANI

ANTZIOLA
OKINDEGIA

ezkati

ileapaindegia

Iturri, 4
Hernani
943 55 65 56
Hartu ordua

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoa

Tel. 649 846 422
HERNANI

Allianz

ASEGURUAK

bizitza -
latripuak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsiok -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71



GAUR Eguraldi triste xamararekin hasiko da eguna, baina eguerdirako ostarrateak irekiko dira. Arratsaldean, ordea, lainotu egingo du, eta ekaitzak jo dezake. Hego ukituko haizera ibiliko da. **Min.19° / Max.28°**



BIHAR Lainotuta egongo da eta litekeena da zaparrada trumoiatsuak botatzea. Eguerdian atertzera egingo du, baina arratsaldean berriro euritara jo dezake. Tenperaturak behera egingo du. **Min.19° / Max.25°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI ERREMONTA

Sei puntu ziurtatuta, Barrenetxea IVak

Ansa Iri irabazita, lau puntu gehiago lortu ditu Barrenetxea IVak Buruz Burukoan, eta sei pilotuta, aurrera egiteko aukera haundia dauka.

FINALERDIETARAKO sailkatzea ia ziurtatu du Barrenetxea IVak asteburuan, erremonteko Buruz Buruko Kutxaban Txapelketan. Ansa Iri 30 eta 23 irabazita, lau puntu lortu ditu, eta sei pilotu ditu guztira. Urnietarrak, berriz, 0 punturekin segitzen du, eta ia

kanporatuta dago. Fase honetako beste bi erremontistak, Urriza eta Endika, partidu bat gutxiago jokatu, berdinduta daude launa punturekin, eta bihar ariko dira aurrez aurre.

Lehia estua, hala ere Azkenerako aldearekin irabazi

bazuen ere, larunbatean ez zen ezer argi egon Galarretan. Barrenetxea IVak 6 puntuko aldea atera zion Ansa Iri partidua hasi bezala, baina askotan gerturatu zitzaion urnietarra. Azkenerako, baina, peloteoa neurtu, sakearekin berriro asma-tu, eta aurea hartu zuen. ||



Zugarramurdi-Osa familiak bat egin zuen, Goizuetako Peñen egunean.

GOIZUETA UMORE ONA

Peñen eguneko urteurrena, familia osoa elkartuta

Umore Ona Peña orain dela 60 urte sortu zenean, herriko mutil gazteek osatzen zuten. Azken urteetan, festetan, oso arrunta bihurtu da azken egunean ospatzen den Peñaren eguneko bazkari horretan, emakumeak, edo aita-semeak, edo aita-alabak elkartzea. Aurten, ordea, «aurreneko aldiz, bi gurasoak eta bi seme-alabak osatutako familia batek hartu du parte Peñen eguneko festa eder horretan», Esteban Arozenak jakinarazi duenez. Luis Zugarramurdi eta jatorriz hernaniarra den Mari Jose Osa senar-emazteek bat egin zuten, Eider eta Mikel, seme-alabekin. ||

Argazkia: ESTEBAN AROZENA.



Giro onean jokatu zituzten larunbatean, Futbol 7 Txapelketako partiduak.

HERNANI FUTBOL 7 TXAPELKETA

Festa giroan, baina aldarrikapena garbi

Larunbatean egin zen Futbol 7 Txapelketa, Zubipeko zelaietan. Hainbat talde aritu ziren lehian, lagun artean eta giro onean, baina aldarrikapen eguna zutela ahaztu gabe; gogoan izan zituzten Aiert Larrarte eta Amaia Esnal hernaniarrak eta 47 auziperatuak, eta irailaren 14an Bilboko manifestaziora joateko dei egin zuten. Hortik aurrera, Tilosetan egindako bazkarian eta ondorengo parrandan segi zuten, jai giroan. ||

HERNANI ARRAUNA

Indar faltarik ez neskek, Liga bukaeran ere

Kontxari ilusioz begiratzeko dago, Maialen; 5 eta 6garren egin du, azkenean berdin geratu bada ere.

INDAR erakustaldi polita egin dute Hernaniko 'Maialen' ontziko arraunlariak, ETE Liga bukatzeko azken estropadetan. Sailkapen orokorrean, berdin, 8garren postuan geratu badira ere, 5 eta 6garren izan dira Bilbon eta Errenterian, hurrenez hurren, asteburuan.

Bilbon San Juanek irabazi zuen (10:53,04), eta Hernani

(11:08,22) geratu zen Isuntza, Kaiku edota Tolosaldearen aurretik. Errenterian, berriz, 11:23,32 eginda, berriro ere Tolosaldea eta Isuntza baino azkarragoa izan zen traine-rua. Azkenean 75 punturekin berdin geratu badira ere, osteguneko Kontxako sailkapenerako indarrak ez dutela falta erakutsi dute neskek! ||

HERNANI IGERILEKUAK

Azken bi egunak, igerilekuan jolasteko

Gaur eta asteazkenean izango da, azkenekoz, Mendi Mendiyaneko igerileku irekietan jolaserako aukera. Goizeko 11:00etatik 13:00etara lehorrekoak egin ahal izango dira: slack line, ohe elastikoak, ping-pong... Eta 13:00etatik 14:30ak ingurura arte, koltxone-tak aterako dira uretara. ||

ASTIGARRAGA-HERNANI ERREPIDEAK

Portun, Ergobin eta hainbat kaletan, lanak

Hernaniko Elizatxo eta Portu auzoetan sortzen diren mugikortasun arazoak konpontzeko lanetan ari da Udala, eta hori horrela, gaurtik ostiralera bitartean itxita egongo da Portuko tunela. Oindi kaletik sartu behar harko da Elizatxora, eta Portu eta Osiñagara, Karabelen barrena. Bestalde, asfaltatze lanak egingo dira gaur Zinkoenean, Txiritan eta Sagastalden, baina ez diote eragingo trafikoari. Bai, ordea, bihar Iturregi kalean egingo diren lanek. Beraz, bihar goizeko 07:00etarako kotxeak bertatik ateratzeko eskatu dute. Astigarragari dagokionez, berriz, bihartik aurrera oinezkoentzako bakarrik izango da Ergobiako plaza. ||

HERNANI KONTRAKANTXA

Auzolanerako deia, biharko

Ikasturte berriari begira martxan jarri dira Kontrakantxa Gaztetxean. Hori horrela, biharko auzolana deitu dute 10:00etarako, eta 14:00etan bazkaria egingo dute. Animatzeko dei egin dute. ||

HERNANI OSIÑAGA

Nafarroara joateko izena, gaur arte

Irailaren 1ean Leireko monasterioa, Xabierko gaztelua eta Zangotza ezagutzeko irteera egingo dute Osiñagatik. Gaurkoa da izena emateko azken eguna. ||

URUMEA KRONIKA

Liburu azoka irekita, gaurtik

Hainbat eskola liburu jaso ditu Kronikak, bigarren eskuko azoka martxan jartzeko. Gaurtik aurrera, bulegotik pasa ahal izango du nahi duenak, behar duen libururik ba ote dagoen ikusi eta merke-merke erosteko. ||

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu jatetxe bateko sukaldean laguntzeko eta arraskako lanetarako. Kotxea beharrezkoa da. **Deitu: 943 33 13 87**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**